## Udaleko obra eta zerbitzuetako peoien lanpoltsa osatzeko deialdia

Udaleko obra eta zerbitzuetako peoien lan-poltsa osatzeko deialdia arautuko duten oinarriak.

**1.-** Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da peoien lanpoltsa osatzea lehiaketa-oposizioaren bidez.

Lanpostua sailkapeneko E taldekoa da.

Lan-egunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, beti ere lanpostuaren izaera eta premien araberakoak. Aretxabaletako jaietan, jaiegunetan eta brigadak dituen lanei ere erantzun beharko die, egun horiek lanegutegian sartuko direlarik. Ordu hauek lanordu arruntak izango dira eta beste lanegunekin konpentsatuko dira. Lanpoltsa osatuta, Udalak lanerako deituz gero, lanpoltsako zerrendaren amaierara igaroko da, beti ere udalak horrela irizten badio. Lan eskaintzari ezetza ematen dionak justifikatu gabeko arrazoiengatik.

**2.-** Betekizunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

1. Masa egin eta ofizialei materiala eman.
2. Hainbat konponketetan laguntza lanak (elektrizitatea, iturgintza, estolderia….).
3. Saneamenduak, ubideak, saretak... garbitu.
4. Asfaltatze-lanetan parte hartu.
5. Taulatuak muntatu, desmuntatu, kargatu, deskargatu...
6. Bankuak, zakarrontziak, barandak, farolak, pintatu.
7. Erabiltzen den makinaria guztiari olioa aldatu.
8. Konpresorearekin lanak egin.
9. Lurperatzaile lanak.
10. Belarra moztu eta sasi-garbitzeko makinarekin lanak.
11. Bere gainetik dagoen langileak agintzen dizkion lanak.

**3.-** Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, lehiaketa-oposizioan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

**a.** Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

**b.** 16 urte beteta izatea.

**c.** Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

**d.** Diziplinazko prozeduraren bidez Estatuaren, Erkidego Autonomoen edo tokiko erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.

**e.** Lehen hizkuntza eskakizuna edota baliokidea izatea.

**f.** B motako gidatzeko baimena izatea.

**G.** Eskola ziurtagiria izatea.

## 4.- Eskabideak

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Aretxabaletako Udaleko Alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira onartuak izateko:

**a)** Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola, e) puntuan ezarritakoa izan ezik. Izan ere eskatutako titulua ez dutenek azterketa egin beharko baitute.

**b)** Eskabidearekin batera, ondoko agiriok aurkeztuko dituzte:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du.

**c)** Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Aretxabaletako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte maiatzaren hogeita bat arte.

Eskabideak, era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazioko Prozedura Erkidearen Legearen) 38.4 artikuluan adierazi bezala, Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkez daitezke. Aretxabaletako Udaleko Alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

## 5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda Aretxabaletako Udaleko iragarki-taulan eta www.aretxabaleta.com webgunean jarriko da ikusgai. Udalak 10 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazioko Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera. Behin-behineko zerrenda, besterik gabe, behin betikotzat joko da erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrenda onetsiko du Udalak, eta hura ere udaleko iragarki taulan argitaratuko du.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtso aurkez dezan.

Aldez aurretik eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

## 6.- Epaimahaia

Lehendakaria:

Saioa Llodio Uribeetxebarria.

Mahaikideak:

Jose Ramón Urrutia Isasisasmendi
Begoña Arenaza Madinabeitia
Martin Garai Lasa

Idazkaria:

Alex Garai Barrachina

Epaimahaiak, bidezko baderitzo, aholkulari adituen laguntza eska dezake edozein probatan.

Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, eta Alkate-Lehendakariari horren berri emango diote, baldin eta 30/1992 Legeko (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazioko Prozedura Erkidearen Legeko) 28. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren bat gertatzen bada. Era berean, errefusagai izango dira, Lege bereko 29. artikuluaren arabera.

Epaimahaia osatzen duten kideek gutxienez erdiek izan beharko dute lanpostura sartzeko eskatzen den jakintza-arlo berari dagokion titulazioa, eta guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa.

Epaimahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, Epaimahaiko idazkariak izan ezik, hark ez baitu bozkatzeko eskubiderik izango. Bestalde, epaimahaia ezingo da eratu eta aritu Lehendakaria eta Idazkaria eta epaimahaikide titular zein ordezkoen erdiak etorri ez badira.

## 7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Lehenengo ariketa goizeko 9:00etatik aurrera egingo da web orrian adierazitako egunean. Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

Lehen ariketa:.

Ariketa hau bi frogek osatuko dute:

**1.** Froga teorikoa. Derrigorrezkoa eta ez baztertzailea. Obra brigadako peoi lanpostu honekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoa test moduko izango den eta nola puntuatuko den.

Froga honetan gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

**2.** Froga praktikoa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Obra brigadako peoi lanpostuarekin zerikusia duen(ten) froga(k) egin beharko dituzte.

Froga hauek eta bakoitzaren puntuazioa epaimahaiak zehaztuko ditu. Froga honetan lortu ahal izango dira 20 puntu gehienez.

Ariketa hau pasatu ahal izateko derrigorrezkoa izango da bigarren frogaren puntuazioaren %50a.

**3**.Euskerako azterketa. Eskatutako hizkuntz eskakizuna ez dutenek euskerazko azterketa egin beharko dute eta azterketa gainditzeak ez du inolaz ere esan nahiko titulo ofiziala eskuratu denik.

## 8.- Merezimenduen fasea

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

Bete behar den lanpostuaren funtzioekin erlazionatuta egindako lana. Gehienez ere 10 puntu arte, hileko 0,5 puntu.

Merezimendu horiek, Enpresa-ziurtagirien edo zerbitzuak bete diren Administrazioak luzatutako agirien bitartez egiaztatu beharko dira eta Gizarte Segurantzak luzatutako egiaztagiria ere, laneko bizitza adierazten duena, aurkeztu beharko da. Egiaztagirietan betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

Elektrizitate eta elektronika, erainkuntza eta obra zibilak, edota instalazioak eta mantenimentua arloko Lanbide Heziketako titulazio homologatua izateagatik; bi puntu, eta gehienez 6 puntu.

Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandako ikastaroak edo mintegiak egitea, eta bestelako prestakuntza-jarduerak egitea (bekadun gisa, praktikaldian, etab.), eta elektrizista lanekin zerikusia dutenak, gehienez ere 4 puntu arte balioztatuko da. Ikastaroek gutxienez 20 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko eta honela baloratuko dira:

- 20 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: 0,5
- 20 orduko ikastaroak: puntu bat
- 50 orduko ikastaroak: 2 puntu.
- 75 orduko ikastaroak: 3 puntu.
- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 4 puntu.

Ikastaroaren iraupena orduetan adierazten ez direnetan ez dira kontutan izango.

## 9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba guztiak egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki-taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

## 10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Bi izangaiek edo gehiagok puntu kopuru bera izanez gero, ondoko irizpide hauen arabera erabakiko da, jarrita dauden hurrenkeran:

a) Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluaren arabera.
b) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
c) Teoria proban puntu-kopururik handiena ateratzea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu oposaketa lehiaketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen araberako hurrenkeran antolatuak: puntu gehienekotik gutxienekora.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago gutxienezko baldintzak betetzen dituenik, deialdia hutsik aldarrika dezake.

Epaimahaiak Aretxabaletako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, lanpoltsaren osaketa eta hurrenkerarekin.

## **11.-** Kontratazioa

Organo eskudunak, aldi baterako kontratazio premia dagoen bakoitzean, Epaimahaiak proposaturiko izangaien artean lortutako puntuazioaren hurrenkeran kontratatuko du.

Frogaldiak egiten diren kontratuetan zehaztuko den iraupena izango du.

## **12.-** Lanpoltsa

Lehiaketa-Oposizioa gainditzen duten hautagaiekin obra eta zerbitzuetako peoien lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsa indarrean egongo da gehienez hiru urte.

## **13.-** Prozesuaren argitalpenak

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Aretxabaletako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira(www.aretxabaleta.com ).

## **14.-** Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak eskumena dauka sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren martxa ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta hemen aplika daitekeen arautegi osagarrian xedatu ez den kasuetarako.

## **15.-** Inpugnazioak

Deialdi hau, honen oinarriak eta hauetatik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako epe eta moduan.

Aretxabaleta, 2012ko apirilaren 23a.

**Convocatoria para crear una bolsa de trabajo de peon de obras y servicios del Ayuntamiento**

Bases que regirán la convocatoria para crear una bolsa de trabajo de peón de obras y servicios del Ayuntamiento.

## **1.-** Objeto de la convocatoria

Es objeto de la presente convocatoria crear una bolsa de trabajo de peones de obras y servicios mediante concurso-oposición.

El puesto de trabajo está incluido en el grupo E de clasificación.

El calendario y horario laboral serán los fijados por el Ayuntamiento de año en año, adecuándose siempre a las características del puesto de trabajo y a las necesidades. También deberá responder a los trabajos que tenga la brigada dentro del programa de fiestas de Aretxabaleta o días festivos, incluyéndose estos dentro de su calendario laboral. Por ello estas horas tendrán la consideración de horas normales y serán compensadas con otras laborables.

## **2.-** Funciones a desarrollar

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria, entre otras, son las siguientes:

1. Hacer masas y suministrar material a los oficiales.
2. Colaborar en varios trabajos de arreglos (electricidad, fontanería, alcantarillado……).
3. Limpiar saneamientos, regatas, rejillas etc...
4. Participar en los trabajos de asfaltados.
5. Montar, desmontar, cargar, descargar los tablados.
6. Pintar, bancos, papeleras, barandados, farolas etc.
7. Cambiar de aceite a toda la maquinaria que se utiliza.
8. Elaboración de trabajos con el compresor.
9. Trabajos de enterrador.
10. Cortes de hierba y trabajos con desbrozadora.
11. Trabajos encomendados por su superior.

## **3.-** Requisitos de los aspirantes

Los aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para ser admitidos y, si procede, para tomar parte en el concurso-oposición:

**a)** Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. Si resultaran seleccionadas, deberán acreditar la posesión de la autorización administrativa para realizar la actividad objeto del contrato con carácter previo a la formalización de éste.

**b)** Tener 16 años cumplidos.

**c)** No tener ningún impedimento físico, psíquico ni cualquier otro que impida la normal prestación de las funciones propias del puesto de trabajo.

**d)** No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

**e)** Estar en posesión del perfil lingüístico 1 o titulo equivalente.

f) Estar en posesión del carné de conducir de la clase B.

g) Estar en posesión del título de certificado escolar.

**4.-** Instancias

Las instancias para tomar parte en el concurso-oposición se dirigirán a la Alcaldesa-Presidenta de la Corporación de Aretxabaleta y deberán cumplir los siguientes requisitos para que no sean rechazadas:

**a)** Todos y cada uno de los requisitos enumerados en la base tercera deberán poseerse en el día de finalización del plazo de presentación de instancias a excepción del recogido en el apartado e) ya que aquellos que no acrediten estar en posesión de la titulación exigida deberán hacer el correspondiente examen.

**b)** Junto con la instancia, deberán presentar la siguiente documentación:

- Fotocopia del D.N.I. o documento de identidad.
- Documentos que acrediten los méritos expuestos en la instancia para que sean valoradas en la fase de concurso.

En los documentos que se presenten para la acreditación de los méritos sobre la formación complementaria deberá especificarse la duración del mismo.

**c)** Los aspirantes deberán especificar en sus instancias en qué idioma oficial de la Comunidad Autónoma Vasca desean realizar los ejercicios de la fase de oposición.

Las instancias, debidamente cumplimentadas, deberán ser presentadas en las oficinas del Registro General del Ayuntamiento de Aretxabaleta en el plazo que finaliza el 21 de mayo.

Así mismo, las instancias también podrán ser presentadas en los registros de las Administraciones Públicas relacionadas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 (Ley de Régimen Jurídico de Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, de 26 de noviembre). Estarán dirigidas al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Aretxabaleta, y el funcionario que las recoja deberá ponerles la fecha y el sello correspondiente dentro del plazo establecido. Los errores de hecho podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición del interesado.

**5.-** Admisión de aspirantes

La lista provisional de admitidos y rechazados será expuesta al público en el tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Aretxabaleta y en la página web www.aretxabaleta.com

El Ayuntamiento concederá un plazo de 10 días naturales para hacer reclamaciones, de conformidad con lo establecido en el artículo 71 de la Ley de Régimen Jurídico de Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

Las listas provisionales se considerarán definitivas si no se presentan reclamaciones. En caso de que hubiera reclamaciones, éstas serán admitidas o desestimadas por una resolución del Ayuntamiento que aprobará la lista definitiva y que será publicada también en el citado tablón de anuncios municipal.

En contra de este acuerdo podrá ser interpuesto un recurso contencioso administrativo en el tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en la sala de los contencioso administrativo, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente a la publicación de la lista de admitidos y rechazados. Esto no supondrá ningún impedimento para que se pueda presentar algún otro recurso si alguien lo estima conveniente.

Previamente, y si se estima conveniente, podrá interponerse un recurso de reposición dentro del plazo de un mes.

## 6.- Tribunal calificador

El Tribunal Calificador del concurso-oposición estará compuesto por:

Presidente:

- Saio Llodio Uribeetxebarria

Vocales:

- Jose Ramón Urrutia Isasisasmendi.
- Begoña Arenaza Madinabeitia
- Martin  Garai Lasa

Secretario:

Alex Garai Barrachina

En las pruebas en que lo considere conveniente el Tribunal, podrá recabar la colaboración de asesores expertos en la materia de que se trate.

Los miembros del Tribunal están sujetos a los supuestos de abstención y recusación previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre. En caso de hallarse incurso/a en las circunstancias previstas en estos apartados se lo comunicarán al Alcalde-presidente.

Al menos la mitad de los componentes del Tribunal estarán en posesión del título correspondiente al mismo ámbito de conocimiento solicitado para acceder al puesto de trabajo, y el resto serán del mismo nivel académico o superior.

Todos los miembros del tribunal tendrán derecho a voz y voto, excepto el Secretario, que no tendrá derecho a emitir voto. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar si no se reúnen el Presidente y el Secretario y la mitad de los componentes titulares o suplentes.

## 7.- Ejercicios de la fase de aptitud

El primer ejercicio se realizará a partir de las 9:00 horas en la fecha que se indique en la página web.

La fase de aptitud constará de los ejercicios que a continuación se indican:

Primer ejercicio:

Este ejercicio consta de dos pruebas:

1. Prueba teórica: De carácter obligatorio y no eliminatorio. Los aspirantes deberán responder a preguntas relacionadas con este puesto de trabajo de peón de la brigada de obras. El Tribunal decidirá las preguntas, si la prueba será a modo de test y cómo se puntuará.

Esta prueba se puntuará como máximo con 10 puntos y deberán obtenerse 5 puntos para superarla.

2. Prueba práctica: De carácter obligatorio y eliminatorio. Deberá(n) realizarse una(s) prueba(s) relacionada(s) con el puesto de trabajo de peón de la brigada de obras.

La(s) prueba(s) y la puntuación de cada una de ellas serán decididas por el Tribunal. Esta prueba se puntuará como máximo con 20 puntos.

Para superar este ejercicio será obligatorio lograr al menos el 50% de la prueba práctica.

3. Examen de euskera. Los aspirantes que no hayan acreditado documentalmente estar en posesión del perfil lingüístico uno deberán hacer un examen de euskera sin que la superación de dicho examen conlleve la obtención de titulo oficial alguno.

## **8.-** Fase de méritos

El Tribunal valorará los siguientes méritos siempre y cuando, de conformidad con lo establecido en el apartado b) de la base cuarta, han sido relacionados en la instancia y acreditados mediante certificados, teniendo en cuenta el día de finalización del plazo para presentar las instancias:

- Trabajo realizado y relacionado con las funciones del puesto de trabajo a cubrir: 010 puntos por mes, hasta un máximo de 3 puntos.

Estos méritos deberán acreditarse mediante certificados de empresa o documentación emitida por las administraciones en las que se han prestado servicios, acompañados del certificado de vida laboral expedido por la Seguridad Social. En dichos certificados y documentos deberán especificarse las funciones desempeñadas.

- Asistencia a cursillos o seminarios impartidos por organismos oficiales u otros homologados por éstos, y asistencia a actividades de formación (como becario, en prácticas, etc.), siempre que tengan relación con el puesto de trabajo. Se valorarán con cuatro puntos como máximo. Los cursillos deberán tener una duración mínima de 20 horas para ser tenidos en cuenta y se valoraran de la siguiente forma:

    - Cursillos de menos de 20 horas: 0,5 puntos.
    - Cursillos de 20 horas: un punto.
    - Cursillos de 50 horas: dos puntos.
    - Cursillos de 75 horas: tres puntos.
    - Cursillos de 100 o más horas: cuatro puntos.

## **9.-** Desarrollo de la fase de aptitud

Si el Tribunal lo estima conveniente, puede variar el orden de los ejercicios establecido en la base séptima y puede decidir la realización de todos los ejercicios el mismo día.

Los aspirantes que no acudan al lugar establecido en la hora y día establecidos para la realización de los ejercicios por el Tribunal, incluso por motivos justificados, quedarán fuera del proceso de selección.

Una vez realizados los ejercicios a superar, el Tribunal acordará la exposición en el tablón de anuncios la relación de los aspirantes que han superado el ejercicio.

## **10.-** Propuesta del Tribunal

La calificación final de cada aspirante se obtendrá mediante la suma de los puntos que ha obtenido en las dos fases, y esa suma decidirá el orden para primar a los aspirantes.

En caso de empate en la puntuación, se decidirá de conformidad con los siguientes criterios, respetando su orden:

a) De acuerdo a lo dispuesto en el artículo 20.4.a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero de igualdad de mujeres y hombres.
b) La obtención del mayor número de puntos en las pruebas prácticas.
c) La obtención del mayor número de puntos en las pruebas teóricas.

Una vez valorados los ejercicios, el Tribunal expondrá en el tablón de anuncios los nombres de los aspirantes que han superado el concurso-oposición, en el orden correspondiente a los puntos que han obtenido: de mayor a menor puntuación.

Si en opinión del Tribunal entre los aspirantes presentados a la convocatoria no hay ninguno que cumpla los requisitos mínimos, puede declarar desierta la convocatoria.

El tribunal remitirá el acta correspondiente al órgano competente del Ayuntamiento de Aretxabaleta junto con la composición y distribución de la bolsa de trabajo.

**11.-** Contratación

El Órgano competente contratará, en caso de necesidad de contratación temporal, a las personas propuestas por el tribunal según el orden de puntuación obtenido en todo el proceso.

El periodo de prueba tendrá la duración señalada en cada contrato.

**12.-** Bolsa De Trabajo

Con los aspirantes que han superado el concurso-oposición y no hayan obtenido la plaza, se creará una bolsa de trabajo de peón de obras y servicios.

La vigencia de la bolsa de trabajo será como mucho de tres años.

**13.-** Publicación del proceso

Todo aquello que se haya de publicar durante este proceso (relación de admitidos y rechazados, resultados de la fase de oposición, resultados de la fase de concurso,...) se publicará también en la página Web del Ayuntamiento de Aretxabaleta (www.aretxabaleta.com ).

**14.-** Incidencias

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del Concurso-oposición, en todo lo no previsto en las bases y en la legislación de aplicación supletoria.

**16.-** Impugnaciones

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados, en los plazos y formas previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.